

Soloeta B. Aires'ko Euskal-Etxeko irakasleari Ur-gazle-izenpena igoitzeko.

15. Kanpion yaunak Napañuako Aldundiari idatzi dezayoke, Luciano Bonaparteren eskuidazkiaz.

16. Aita Zabalaren ipuñetarako Eguskitza yaunari itzaurerxo bat egotzi zaio.

17. Kanpion yaunaren aburuz, on litzake berarizko ikastetxeak iratsi dituzten euskaldun batzuei idaztea, eren ikasguetan euskera sar ta erabili dezaten: oretarako, auzer zeintzuk diran yakin-da, igori bear zaye Euskaltzaindiyaren artarakiko ardurazopena.

18. Iruñako Gotzai yaunak Azkue yaunak bializiyon idazkiari ez dio erantzupenik eman: ez baleyoke garaiz emango, Gotzai yauna beronen etxean ikusi dezakete Intza, Urkixo ta Kanpion yaunak.

**Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi - Jauregian
1920'ko, Azila'ren 25 eta 26'an.**

Euskaltzain oneik batu zirean: Azkue, Urkixo, Kanpion, Olabide, Lande, Intzagarai, Eguskitza, Altube, Intza, Lakonbe.

Asieran Zadoñlari-ordeko Intzagarai euskaltzain jaunak azken-batzarretako agiria irakurri eban eta ontzat artua izan zan.

Ona emen artu zirean erabagiak:

1. Euskaltzainburuak Bartzelonako *Institut d'Estudis Catalans* deritxon izakeraren bariak emonaz bere lan bat irakurri eban eta abegi onez entzun ondorean eskeñak erakustea erabaki zan. Baita Pompeu Fabra eta Puig eta Cadafalch jaunai (lenengoa *Institut*-eko artezkaria da, bigarena Mancomunidad Catalana-ko Buruzagia) Euskaltzainburuari egin eutsen abegi on eta emon eutsen ezeztasunen ordeze eskeñak emotea erabagi zan.

2. Henry Gavel urgazle jaunari egunarte egin dauzan euskal-lan bikainen alderako eta aurrerantzarako daukazan asmo ederrak beteteko batez be «Euskal-Izpiakeraz» ta «Euskal-Alkarbideaz», 4.500 franco emotea.

3. Azparneko Ikasguko Artezkariari, ikasgu oretan sartzeko asmoa daukan euskal-irakaste ori zelan izango dan zearotxoago esateko eskatzea.

4. Iruñako Gotzain jaunari ikustaldi bat egiteko, Intza, Kanpion eta Urkixo jaunak izentau ziran. Euskaltzaindiaren izenean eskabide auxe egiñaz: «Uri atako Apaiz - Ikasgu edo Seminarioan euskal - irakastea sartzeko baimena ta Boletin'ean argitaratzen direan irakasteak edo pastoralak euskeraz be agertu daitezala.» Batzorde onek beronek ikusi bei Gofñi jauna, ta irakaste orrek euskaratzeko arloa eskiñi beyoe.

5. Bizkai-Aldundiak bialduriko itz-mordoxkaz itz egin zan eta oroen eretxiak artu ondorean, urango batzarétan, obeto ikasi-ta, azken-eretxia emotea erabagi zan.

6. Euskeraren batasunaz izango dan Batzar-Agria Lotazilaren 26 eta 27-an Bilbon izatea erabagi zan. Batzar orétan, nai euskeraz, nai gazteleraz nai prantzesez irakurri daitekez lanak eta ezta bearezkoa egileak eurak irakurtea. Egilearen baimenaz edonork irakurri daike.

7. Altube euskaltzain autatuaren sarerea Bilbo'n Lotazilaren 28'an izango da ta sarera orétan irakurriko dauan lana Euskaltzaindiaren agerkarian eta banaka argitaratuko da.

8. Egunerokoetan euskal-saila beteteko arloa ondo eroateko, Bizkayan Manterola'tar Gabirel urgazle jauna, Euskaltzainburua artezkari dala, izentau zan. Gipuzkoan eta Napañoan arlo goratsu au beteteko ardurea Intzagarai eta Intza jaunak artu beye.

9. Aranburu eta Ariola ekintzariak *placas esmaltadas* deritxon idazkunen domua eskatu.

10. Ezautailuak uré ta eze (verde) margozko lotsaikia imini ta beste ezautailu txiki batzuk, lotsaiki barik, egitea agindu.

11. Izkuntz-Jakintza idaztiak, euskaltzainak lendik ezpadaukez, eta euren domua andia ezpada, binaka erosi.

12. Aldundiai, Euskaltzaindiaren Gutuntegirako, binaka daukezan gutun-elazkinak eskatu.